

KOLDO MARTINEZ URIONABARRENETXEA Medikua **IRITZIA**

Gu geu eta HIESA

Oraingo HIES izenaz (nahiz eta izen —eta izan— apropo-agoa 'GIB infekzioa' izan) ezagutzen dugunaren historia ofiziala 1981. urtean hasi zen, homosexual aktiboak ziren gizon gazte banaka batzuk afektatuz. Horrela zioen ekainaren 5eko alean MMWR (Morbidity and Mortality Weekly Report) delakoak: «Paziente hauek denak homosexualak izateak nolabaiteko asoziazioa sujeritzen du (eritasun honen artean) eta beren bizitza estiloaz...». Infekzioa laster hedatu zen giza poblazio zabalago eta heterogeneoago bati eraginez: gizon homo eta heterosexu-alak. Ondorengo urtearen erdian, infektatuen artean heroina (eta beste droga batzuk) zainetatik kontsumitzen zituztenak ere baziren, baita haitianoak, hemofilikoak, eta odola edo odol produktak jaso zituzten hainbat. Hauen artean emakumeak ere baziren, nahiz eta 1983 arte ez jakin haue- tano batzuk beren sexu harreman- en bidez izan zirela kutsatuak. Beranduago arte ez genuen jakin emakumeek infekzioa jasan eta transmititu ere egin zezaketela. Hau guztia jakin arren —edo agian bazekielako— birusa mundura aurkeztu zutenean, hor- rela mintzatu zen Margaret Hec- kler EEBBetako Giza eta Osasun Zerbitzuen Idazkari Nagusia: «Birusa geldiarazi behar dugu, *poblazio jeneralera* hel dadin baino lehen». (Ordura arte kutsa- tuak zeudenak *poblazio jenera- leko* partaide izango ez balira be- zala... 1987.eko urtarrilean, US News and World Report dela- koaren azalean hau irakur zeza- keen: «Bapatean, HAIEN erita-

suna GEUREA da»... GIB infekzioaren eraketa gay eritasun bat bailitz ez datorrela bat 'errealitate materialaz', errealitateak ar eta eme, gay eta normal, promiskuo eta monoga- mo, kulpadun eta kulpagabekoen arteko edozein dibisio estable kuestionatzen duelako, infek- zioaren historiak berak argi uzten du. Gaur lasai esan dezakgu zient- ifikoek HIESaz eraiki eta zabal- du zuten imajinak giza sexu kon- dukta eta sexu bidez transmiti- tzen diren eritasunez ezagutzen ditugun errealitateak erabat ig- noratzen dituela.

Ez dira homosexualak GIB in- fekzioaren arriskutan daudenak, baizik eta sexu 'ez seguru' forma batzuk praktikatzan dituztenak. Kondukta eta identitatearen ar- teko diferentzia hau erabat gar- rantzitsua da GIB infekzioaren eta HIESaren ulerpen arrazional bat lor dezagun. Nola ez medi- oek, ez publikoak ez duten jener- alkari ezberdintasun hau azpima- rratzen, 'HIES' eta 'GAY' kon- tzeptuak elkarlotu egin dira, hor- rela homosexualitatearen eta HIESaren perzeptzio publikoa bereiziezina bihurtuz. Honek ondorio bikoitza du: alde batetik, inolaz ere beharrezko ez den dis- kriminazioa ekoizten du gay be- zala identifikatzen direnen kon- tra, eta bestalde, arrisku praktika- rik egiten ez dutela petnsatzen dutenek edo gay bezala perzibi- tzen ez direnak, GIB infekzioa- ren arriskurik ez dutela pentsa de- zakete, nahiz eta arriskua izan...

Hau guztia gogotara erakar- tzea beharrezkotzat jo dut, zeren eta garrantzitsua da etorkizune- rako iragana ez sinplifikatzea.

Ez dira homosexualak GIB infekzioaren arriskutan daudenak, baizik eta sexu 'ez seguru' forma batzuk praktikatzan dituztenak.

HIESa agertu zenean, homosexualitatearekin estu-estu lotu zuten adituek gaitza. Horrek kalte nabarmena egin zion, ez bairik gabe, gay mugimen- duari. Urteek aurrera egin bala, HIESa edonork har dezakela ikusi da, eta gainera, homosexualena dela transmisioan behera egin duen kolektibo bakarra. Behar diren neurriak hartzea da giltzarria.

Sexua bai, baina segurua

Homosexualen artean soilik egin du behera HIESaren transmisioak

80ko hamarkadaren hasie- ran homosexualitateare n onarpena gizartean heda- tzen hasi zenean eta gay eta les- bianen mugimendua indartzen, orduantxe azaldu zen HIESa. Hasiera-hasieratik homosexuali- lotu zitzaizen batzuk izurri berri- tzat jo duten gaitza. «1981ean agertu ziren lehendabiziko kasuak, eta berehala GRID izena eman zioten; hau da, gay izatearekin zerikusia duen immuno-eskasia», azaldu digu Juan Lunak, EEBBetan bizi den uni- bertsitateko irakasle eta gayak. Izan ere, homo- sexualen kolektiboa be- reziki astindu du HIE- Sak.

Hasiera hartan, gai- xotasunaz hitz egiteare- kin batera 'arrisku tal- deak' aipatzen ziren: to- xikomano, gay eta he- mofilikoak. «Lotura hor- rek eta eritasunak berak izugarritzko atzerakada ekarri zuen homosexualon mugi- mendura. Beldurra nagusitu zen. Alde batetik, informazio eskasia zela eta HIESari berari genion beldurra, eta bestetik, gizartean gertatzen ari zen marjinazio prozesuak ere ikaratu gintuen».

Urteek aurrera egin ahala, HIES kasuak ugaltu egin dira eta giza esparru guztietara zabaldu: gaur egun ez dira hemofiliko, drogazale eta homosexualak ba- karrik kutsatzen; jada ez dago arrisku talderik. Gero eta gehia- go dira harreman heterosexualen bidez gaitza hartzen dutenak,

batipat emakumeak.

Gayen kolektiboa da, aldiz, azken urteetan transmisio kopu- ruan behera egin duen bakarra, eta aditu guztiak bat datoz horre- tan. Euskal Herriko datuei erre- paratzea besterik ez dago: EAEn, HIES kasu guztien % 4,8 beste-

bezalaxe, emakumeen bajinako fluxua ere kutsatzailea da, ordea, eta transmisio arriskua badago nahiz eta txikiagoa izan. «Neu- rriak hartzea ezinbestekoa da les- bianen artean ere», aipatu zuen Angels Cardius Gipuzkaoko HIESaren Kontrako Elkarte Hi-



Presebatiboaren erabilera zein bestelako profilaktikoa ezinbestekoa da. SIMAL

rik ez da hartu harreman homo- sexualen bidez, Nafarroan 4,3 eta Iparraldean 39,6.

Gayek eritasunaren inguruan hartu duten kontzientzia da hor- ren arrazoi adituen arabera.


LESBIANAK ERE KUTSA DAITEZKE Lesbianak, berriz, ahantzita izan ditu HIESak gizarteak berak bezalaxe. Bazirudien les- bianek ez zutela elkar kutsatzeko arriskurik, eta zenbaitzuen ustez HIESaren transmisio kanpo ze- goen sexu praktika bakarra les- bianena zen. Gizonezkoen hazia

ritarreko kide eta lesbianak.

Oztopo nagusia informaziorik eza dela salatu zuen: «Ikerkete- tan, komunikabideetan, lesbia- nak ez dira sekula azaltzen. Itsu- mustuan ibili gara askoan».

Luna eta Cardius bat etorri zi- ren sexu harremanak ez direla ez aldatu ez gutxitu eta ez direla bi- kotekide bakar batera mugatu behar esatean: «Baina beti go- goan izan behar dugu HIESa hor dagoela, gay, lesbiana, hetero- sexual... edonorentzat. Horrega- tik prebentzio neurriak hartu be- har dira, eta hori ez da zaila».

BILDUMA La llave la tengo yo



Bilduma honek gizartean tabu den gai bat jorratu nahi du: lesbia- nismoa. Emakume bakoitzak bere sexualitatearen giltza izan dezan, be- regana dezan, horren alde borroka dadin eta uler dezan batzuen nagusitasuna beti besteen ahultasunean oinarritzen dela.

- TERREMOTO
- Sheila Ortiz Taylor 1800
- LA AMANTE CELESTE
- Lesbianaren suntsitze zientifikoa
- Rosanna Fiocchetto 1500
- PASIONES
- M^a Felicitas Jaime 1500
- CRIS & CRIS
- M^a Felicitas Jaime 1300
- Q. E. D.
- Gauzak diren bezala
- Gertrude Stein 1500

Bilduma honen harpideduna izan zaitezke.

HORAS y HORAS ARGITALETXEA

San Cristobal k., 17/MADRID 28012/Tfnoa. eta Faxa: (91) 52 17 043

HETEROSEXISMOARI ERE INTSUMISIOA

X X X X X X X X X

GIPUZKOAKO EHGAM
P. K. 1632 Donostia

GIPUZKOAKO LESBIANA
FEMINISTEN KOLEKTIBOA
P. K. 985 Donostia

